

Aldaban eta Iruran San Migel eguna ospatu dute

Festak » Aldaban aurtengo jaien azken eguna izan zuten. Iruran oraindik egun batzuk gelditzen zaizkie jai giroaz gozaten jarraitzeko.

ENERITZ MAIZ

Atzo izan zen Aldaba eta Irurako jaien eguna. San Miel eguna ospatu zuten. Batean ala bestean, herritarrek ez zuten hutsik egin.

Iruran dianarekin eguna hasi eta Meza Nagusia izan zuten. Eta herriko haurren dantza saioaren ostean, hamaiketako herrikoia izan zuten. Guztiek izan zuten tripa betetzeko aukera. Arratsaldean, herriko dantza taldeak ikuski-zun berria eskaini zuten. Eta jarrera, Miren Fernandezek bere diskoa aurkeztu zuen. Egunaren bukaeran Kupela taldearen trikiti-xa doinuak nagusitu ziren.

Jubilatu elkarteak 25 urte

Udalak eta Gizarte Zerbitzuek animaturik, jubilatutako talde bat elkarte sortzeko helburuarekin bilerak egiten hasi zen. 1985eko uztailean, Irurako Jubilatutako eta Pentsiodunen Elkarteak, izena eman zuen erregistroan. 25 urte bete dituzte.

San Miguel plazan Zaharretxe izenarekin ezagutzen den jatetxe-tabernan herritar guztiek kon-

partitzen dute. Bertan, biltokia eta bulegoa dituzte. 25 urte pasa izanagatik, gogo handiz elkartzeko dira jokorako, txangoak egiteko, otorduatarako... Hala ere, laster txoko berria izango dute. Egitasmoa aurrera ateratzen bada, Xare kalean eraikiko den etxebizitza tasatuetan izango dute. Urriaren 10ean ospatuko dute euren eguna.

Aldabarrak biltzeko eguna

San Migel egunez, aldabarrak auzora gerturatzeko joera izan ohi dute. Eta atzokoan ere asko eta askok horrela egin zuten, 40 lagun inguru elkartu baitziren. Egunari hasiera Meza Nagusiarekin eman zioten eta auzoko frontoian hamaiketako ederra zuten zain. Mahaiaren bueltan eseri eta kontu kontari aritu ziren.

Arratsaldea karta jokoan pasa zuten. Eta auzoan ospatzen duten egun handian, afaltzeko, 50 lagunetik gora elkartu ziren. Parrillan erreta, txuleta afaldu zuten. San Migel egunarekin datorren urtera arte, agur esan zieten jaiei.



Aldaban, Meza Nagusiaren ostean hamaiketako egin zuten. I. GARCIA

» IRURAKO JAIK 2010

Bihar, ostirala

- **19:00.** Kalejira egingo dute buruhandi eta erraldoien laguntzarekin.
- **Ondoren.** Txistor-jatea Share Elkartearen.
- **22:30.** Play Back jaialdia egingo dute plazan.
- **24:00.** Dantzaldia Gabezin taldearekin.

Urriak 2, larunbata Bikoteen Eguna

- **11:00.** Haur parkea Loatzo kalean.
- **13:30.** Bikoteen dantza-soka dantzatzeko dute.
- **14:30** Bikoteen bazkaria Aizpuru jatetxean.
- **Ondoren.** Musika dantzagaria izango da zuzenean. Oharra: Ludo-teka zerbitzua egongo da bazkariara joaten diren gurasoen haurrentzat.
- **16:00.** Haur parkea eta puzgarriak Loatzo kalean egongo dira.
- **18:00.** Luma Gorri haurrentzako dantzaldia San Migel Plazan Txorromorro taldearen eskutik.
- **19:30.** Kale antzerkia: *Camping Renove* antzezlanak Trapu Zahar taldearen eskutik.
- **23:00.** Kontzertua Lain taldearekin
- **24:00.** Herensugea erretzea egingo dute
- **Ondoren.** Dantzaldia Haitzama taldearekin.

Urriak 10, igandea Jubilatutako eta Pentsiodunen Eguna

- **12:30.** Meza nagusi abestua izango da.
- **14:30.** Jubilatutako eta pentsiodunen bazkaria Zaharren Biltokian izango da.
- **Ondoren.** Jokoetako sarien banaketa egingo dute eta musika dantzagaria zuzenean izango dute.



Meza ostean, herriko haurrek euskal dantzak dantzatu zituzten. E. MAIZ



Haurrek ere, beraien hamaiketako izan zuten. E. MAIZ

Liburua: **25€**
 DVDa: **15€**
 Liburua + DVDa: **30€**

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:
 943-30 43 45
 harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

Besance anaiak atxilotu dituzte Villabonan ETakoak direlakoan

Politika » Juan Carlos eta Jesus Mari Besance Zugasti inkomunikazio egoeran aurkitzen dira une honetan.

ASIER IMAZ

Guardia Zibilak Juan Carlos eta Jesus Mari Besance Zugasti anaiak atxilotu zituen atzo Villabonan. ETako kide izatea leporatzen die Ismael Moreno Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak. 40 eta 35 urteko billabonatarrek inkomunikaturik aurkitzen dira une honetan. Bi anaiekin batera, Xabier Atristain donostiarrak atxilotu zuen Guardia Zibilak Usurbilen.

Atxilotetak eta miaketak

09:00ak inguruan iritsi zen Guardia Zibila Villabonara. Besance anaiak atxilotu eta Oriamendi auzoko etxebizitza miatzen hasi ziren. «atea ostiko batekin bota ondoren». Hirugarren anaia ere bertan eduki zuten, «etzanda, lurrera begira eta esposaturik».

Herritarren esanetan, goizean Arroa auzoko beste etxebizitza bat ere miatu zuen Espainiako indar armatuak. Espainiako Barne Ministerioaren esanetan, auzo honetako garaje batean, arratsaldean, lehegailuak eta lapurtutako auto bat aurkitu zituzten.

Guztira, Usurbilen eta Villabonan, zortzi miaketa burutu zituen Guardia Zibilak. Lehegailuen bila ibili ziren, Espainiako Barne Ministerioaren esanetan: «Ihes egiteko arriskuak eta lehegailuen gordailua aurkitu beharrak, gizartearen segurtasunean izan zezakeen eraginagatik, operazioa eta atxilotetak aurreratu ditu».

Ertzaintzaren laguntza ere izan zuen Guardia Zibilak atzokoan.

Hauek 11:30ak inguruan iritsi ziren Villabonara eta, komunikabideen eta herritarren aurrean jarri ziren, giza hesia osatuz. Komunikabide andanari dagokionez, «batzuk goizeko 04:00etan Villabonan aurkitzen ziren».

Euren etxean eginiko miaketa amaitu ondoren, Juan Carlos eta Jesus Mari Besance 14:45ean eraman zituen Guardia Zibilak Arroa auzoko garaje batetara, hainbat herritarren txalo eta elkartasun oihuen artean. Bertatik, «auto txuri bat» eraman zuten.

Goizean zehar, Maixel Arrieta alkatea Oriamendi auzoan izan zen. Espainiako indar armatuek ordea, ez zioten inongo informazioirik eman.

Jesus Mari Besance operatu berria dela ere esan zuten herritarrek. Ondorioz, *Habeas Corpus*a eskatzeko tramiteak egiteko asmoa azaldu zuten. Huntzeko 20:00etan batzar informatiboa egiteko asmoa zegoen, horretaz gain, inkomunikazioak irauten duen egun guztietan mobilizazioak egingo dituzte Villabonan, 20:00etan.

«Talde legala»

Espainiako Barne Ministeriotik azaldu zuten, hiru atxilotuek *Imanol Komandoa* osatzen zuten. Ibai Beobidek dinamizaturiko «talde legala» omen zen. Beobide otsailaren 13an atxilotu zuen Guardia Zibilak, Asteasutik Villabonara bizikletaz zihoala. Iturri polizialentzat taldearen burua Xabier Atristain zen. Hala eta guztiz ere, martxoaren 6an, Atristainek bere burua aurkeztu zuen Miarritzeko komisaldegian. Espainiako polizia atzetik zuela jakin zuenean joan zen frantziar poliziaen aurrera. Ondoren espainiar estatura eraman zuten eta azkenik, apirilaren 2lean, aske gelditu zen.



Maixel Arrieta Oriamendi auzoan Besance anaien senideekin. Komunikabide ugari hurbildu zen Villabonara. HITZA

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Autokarabana.** 6 pertsonentzako autokarabana alokairuan hartuko genuke Eguberrietatik Errege Egunaren arteko egunetan. Interesatuak deitu telefono honetara: 647 97 88 45.

EROSTEKO

■ **Akordeoa.** 8-10 urteko umearentzako akordeoi kromatikoa murritzat bat erosi nahi dut. Interesatuak deitu 665 73 33 56 telefono

zenbakira.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Lekunberriko jate-txe batek asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko esperientziadun zerbitzaria behar du. Interesatuak deitu 659 01 52 47 telefono zenbakira.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

Irudikatu mundua BERRIArekin

Gozatu berria

Egin harpidedun eta jaso
ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.

Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berresoluzio ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, x8 argiak hantzez
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIAren harpidedun izateko.

Ezaugarriak:
samsung LE 32C450

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, iria D-Net+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI haragune bat, PCrako sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztien lotzeko.

Urriaren 15ean,
telebista hau zotz egingo dugu
BERRIAren harpidedunen artean,
Elektraren eskutik.

elektra
www.elektragaluk.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukerazazu, **BIZIEUSKARAZ** berria

CCOO eta UGT sindikatuek deitutako greba orokorrek eragin txikia izan du

Ekonomia » Tolosaldeko zein Leitzaldeko enpresa eta saltokietan normaltasuna zen nagusi atzo.

ERREDAKZIOA

Normaltasuna zen nagusi atzokoan Tolosaldean eta Leitzaldean.

Espanian greba orokorra egiteko deialdia luzatu zuten CCOO eta UGT sindikatuek, baina gurean ELA, LAB, EILAS, Hiru eta EHNEk ez dute babestu eta eskualdeko enpresa eta saltokietan ohiko asteazken bateko giroa zen atzokoan.

Gipuzkoan, eragin gutxien

CCOO eta UGTk esandakoaren arabera, Araba, Bizkaia eta Nafarroan izan zuen eragina, batik bat, grebak, eta batez ere, industria sektorean.

Gipuzkoari, dagokionez, hala ere, apalagoa izan zen eragina. Datuei dagokionez, sindikatuen arabera, Gipuzkoan %20 eta 25eko jarraipena izan zuen grebak; indar gehien Donostialdean izan zuen, ondoren Irun eta Errenterian eta Goierri izan zuen grebak eragin gutxien izan zuen herrialdeko zonaldea.

Confebask EAeko enpresaburuen elkartearen arabera Gipuzkoan %1eko jarraipena izan zuen deialdiak. Araban berriz, %3,91koa izan zen eta Bizkaian %3koa, enpresa buruek argitu zuten.

Aurre estreinaldi batekin dator urriko zinema

Tolosa » Mikel Ruedaren 'Izarren argia' filma ikusi ahal izango da Leidor aretoan urriaren 10ean 19:30etik aurrera.

ERREDAKZIOA

Gaurtik urriaren 7a bitarte eskuratu daitezke urriko zinema bonuak, 17:00etatik 19:00etara. Zortzi euro balio dute eta honako filmak ikusi ahal izango dira: *Canino*, *Madres e*

hijas, *Lope*, *Entre nosotros*, *Conocer al hombre de tus...*, *Una luz en el hampa*, *Gainsbourg* eta *Mis tardes con Marguerite*. Haur eta gazte-txoentzat, aldiz, *Step Up 3*, *The Karate Kid*, *Cher Ami* (euskaraz) eta *Adele y el misterio de la momia* eskainiko dituzte.

Jatorrizko bertsoian

Arrakasta handia lortu duen bonuen salmentak, hala ere, izango du beste eragingarrikeria. Izan ere, zinema areto komertzialetan bai-

no lehen, Tolosan *Izarren Argia* filma ikusi ahal izango da. Mikel Ruedaren filma urriaren 10ean eskainiko dute 19:30ean.

Filma jatorrizko bertsoian izango da, hau da, euskaraz, eta gaztelarazko azpitituluak izango ditu. Filma bukatu berri den Zinemaldian ere ikusi ahal izan da eta bertan, besteak beste, Barbara Goenaga aktoreak egiten du lan.

Zinema areto komertzialetan datorren urriaren 22an estreinatuko dute.



Udaberriko dantzariak Lleidan

TOLOSA » Udaberri dantza taldekoak Lleidan izan ziren pasa den asteburuan urtero ospatzen duten Udazkeneko Festaren baitan dantza egiteko. Jaialdian, orain arte, Kataluniako dantza-taldeak bakarrik gonbidatu izan dituzte, baina XX. edizio honetan Udaberrikoiei

ere tartetxoa egin diete. Oso harrera ona izan zuten eta oso txalotuak izan ziren, gainera. Honez gain, dantza taldekoek gogoratu dute haurren ikastaroak ostiralean hasiko dituztela eta zerrendak www.udaberri.com webgunean zintzilik daudela. HITZA

Laburrak

Tolosa & Co-ren ekitaldien datak aldatu dituzte

TOLOSA » Tolosa & Co elkarteak abendua bitarteko larunbat arratsaldeetarako ekitaldi desberdinak antolatu dituela iragarri berri du, baina hasierako datetan zenbait aldaketa izan dira. Lehen emanaldia, hortaz, ez da larunbat honetan izango urriaren 9an baizik. Hauek dira data berriak: urriaren 9an *Kortxea doktoarearen abenturak* eta *musika tresnen fabrika* antzezlanak; urriaren 23an *Tor* eta *Eriz* magoak; azaroaren 20an *Txatxin* eta *Tatxin* magoak; azaroaren 27an *Xirika* Zirkus taldearen *Zorionak zuri* ikuskizuna; eta abenduaren 11n Xurdirin Gabonetako Kontzertua eta *Disko Top*.

Udalbiltzako auzipetuen aldeko elkarretaratzea

TOLOSA » Larunbat honetan, urriak 2, Udalbiltzako auzipetuen aldeko elkarretaratzea egingo dute Tolosan. Hitzordua 12:00etan izango da udaltxearen parean, Plaza Zaharrean. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatzen dituzte elkarretaratzean parte hartzea auzipetuei euren elkartzasuna agertzeko.

Vendetta eta Disaster Krew larunbatean

TOLOSA » Irailaren 11ko Bonberenea Sutan jaialdiaren ondotik, asteburuetako kontzertuei ekiteko txanda ere iritsi zaie. Larunbat honetan bertan, urriak 2, bi kontzertu izango dira 22:30etik aurrera: *Vendetta* eta *Disaster Krew*. Lehenengoek ska-punk munduko doinuak ekarriko dituzte, eta bigarrengeok ere punk-a jorratzen dute batez ere.



HARPIDEDUN IZATEAK BADU SARIA

harpidedunen
TXOKOA hitza

① IKASTAROA

Groseko indarra surf eskolak eskeinitako surf ikastaroa



② LIBURUA

Pedro Mari Otañoren liburuaren 15 ale



③ SARRERAK

Txindokiko Itzala parkerako bi sarrera pare

www.txindokikoitzala.com
info@txindokikoitzala.com



④ ANTZERKIAK

Agerre Antzerki taldearen **DOLTZA** lana ikusteko bi sarrera pare



Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek eskainiko duten **Katxurri Miliputxi** antzezlenarako bi sarrera pare



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info
[harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunearn, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.



Motel graffitigilea da gonbidatuetako bat. Irudian, bere graffitiak. I.T.



Dizebi graffitigileak ere hartu du parte erakusketan. I.T.



Gela honetan euren izenak jarri dituzte Leitzako eta Tolosako gaztetxo batzuek. I.T.

Izateaz eta deituraz erantzun bila

Kultura » Gko Galeriak eginiko 'Inestable' erakusketa ikusgai dago Aranburu jauregian; gizakiaren izateaz egin nahi du gogoeta.

INIGO TERRADILLOS

Gko Galeriak eginiko *Inestable* erakusketa dago ikusgai egunotan Aranburu jauregian. Azaroaren 13ra arte izango da bisitatzeko aukera galeriakoket eta Motel eta Dizebi artista gonbidatuek osatu duten lana.

Galeriakoket azaltzen dutenez, «gizakiak bizitzan behin behintzat bere buruari galdetzen dio izatearen inguruan, eta hain zuzen ere, horretaz ari da erakusketa». Dena den, haratago joan nahi dute erakusketa honetan, eta bigarren galdera bat ere proposatu nahi dute: «Nor bere izenak nolabait erantzuna ematen al dio nortzuk garen erantzunari?; Izen bat badugula erakusleak nolabait existitzen garaela sentiarazteko balio al digu?».

Izan ere, beraiek planteatzen dutenez, «agian izen hori gabe ez dakigu nor garen, ezer sentiaraziz, izatea sentitu gabe». Gizakiak identifikatua sentitzeko behar hori izan du historian zehar, eta hortik sortzen dira gogoeta hauek: «Izena izatearena unibertsala da, kultura guztietan ematen delarik, baina, badira berezko izenak erabili ordez, izen arruntak erabiltzen dituztenak deitura moduan».

Izenak gizakiaren sorreratik

Planteamendu hauek guztiak egin dituzte erakusketan. Izena eta izateaz ari dira, baina erakusketa-gelaren arabera, gai horrekin loturiko alor desberdinak jorratzen dituzte. Hala, lehenengo atalak esaterako, gizakiaren lehen fasea

irudikatzen du, haurra oraindik ere jaiotze gabe amaren sabalean dagoenean. Beraiek azaltzen dutenez, barruan daudelarik ere bere izenarekin deitzen hasten zaizkio haurrari, eta hori irudikatzeok ilun dagoen gelan izen ugari bata bestearen atzetik entzuten jarri dituzte.

Bigarren gelan lazo ugari jarri dituzte zintzilik hormatik; «haur jaioberriak identifikatzeko pultsera modukoak jartzen zaizkie euren izenekin, eta izen horrekin identifikatuko dute hazten denean ere», azaltzen dute.

Hurrengo gelan, berriz, Tolosako Hirukide eta Leitzako Erleta ikastetxeetako haurrek idatzitako izenak jarri dituzte ikusgai. Haurrak euren izena idazteko edo desberdintzeko gai diren unean irudikatu nahi dute horrekin. Bestalde, gela berean, ordenagailu bat eta idazteko makina bat ere jarri dituzte, izenak idazteko era desberdina irudikatzen nahirik.


Hurrengoan Tag-ak ere jarri di-

tuzte: «nerabezeroangure presentzia edo identitatea nabarmenago erakutsi nahi izaten dugu, eta horretarako, askotan ohiko izenaren ordez, beste bat asmatzen dugu, izenorde bat, esaterako».

Bi gonbidatu berezi

Motel eta Dizebi graffitigileek ere euren ekarpena egin dute *Inesta-*

ble erakusketan. «Graffitigileek kalean bizi duten egoera azaldu nahi dute bertan erakutsitako lanen bidez. Izan ere, ordezko izen bat erabili ohi dute normalean lanak sinatzerako orduan, bandalismo izaerak bultzatuta askotan, eta era berean, ezkutatu gabe euren presentzia agerian utzi nahi izaten dute».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Bizikleten alokairu sistema publikoa abian jarriko dute asteburu honetan

Leitza » Plazaola Partzuergo Turistikoaren ekimenez eta Udalaren laguntzaz Plazaolan bizi proiektua egin dute.



Hasteko, 30 bizikleta jarriko dituzte, jendeak alokatu ditzan eta inguruak ezagutu. HITZA

ERREDAKZIOA

Lekunberri, Leitza eta Irurtzungo bizilagunek bizikleten zerbitzu publikoa izango dute asteburitik aurrera. Plazaolan Bizi izeneko zerbitzua Plazaola Partzuergo Turistikoak aipatutako hiru herrietako udaletxeen laguntzaz kudeatutako bizikleten alokairu sistema publikoa da. Zerbitzua hiru herri horietako biztanleriari eta horien mugakide diren Arakil, Areso, Basaburua, Imotz, Iza eta Larraungo populazioari zuzenduta dago eta 30 bizikleta izango ditu oraingoz.

Bizikletak bi erabiltzaile motei zuzenduta daude: harpidedunei eta noizbehinkako erabiltzaileei. Harpidedunak, hots, bizikletak urte osoan zehar maiztasunez erabili ahal izateko, 30euro ordaindu beharko dira; noizean behin bizikletak erabiltzeko, berriz, bere nortasuna baieztatzen duen dokumenturen bat aurkezteaz gainera 0,5euro ordaindu beharko dira lehenengo orduan, eta euro 1 hurrengoetan (4 orduko gehieneko batekin). Bi kasuetan egin beharreko kudeaketak Leitza eta Le-

kunberriko kiroldegietan eta Irurtzungo Plazaola kafetegian kokatuta dauden hiru oinarrietan egin ahal izango dira.

Ekarrirako 30 bizikletak zoru konpaktuetan erabiltzeko prestatuta daude, hala nola, asfaltoa edo zementua, edo lur harroetan ibiltzeko ere, Natur Bidean erabiltzeko zagarrean edo bide partzelariotako lurretan, esaterako; baino ez dira erabilgarriak kirol praktika edo mendiko ibilbideetarako.

Zerbitzua asteko egun guztietan eskainiko da eta erabilgarritasuna bermatzeko zerbitzuaz disfrutatzen 4 orduko gehieneko denbora egongo da. Gehieneko ordu kopuru hori gainditzen duen per-

tsionak 30euroko zigorra izateaz gain, hilabete batez ezin izango du zerbitzua erabili.

Bizi tailerrak Plazaolan

Zerbitzuaren erabiltzaile izango diren bizilagunen artean ezagutzera emateko, Plazaolako Par-

tzuergo Turistikoak tailer batzuk prestatu ditu.

Lehenengoa, bihar izango da Leitza Plazaan, 17:30ean; bigarrena, Lekunberriko geltokian, etzi, larunbata, 11:30ean eta azkena Irurtzungo Plazaan, egun berean, 17:30ean.

Horietan, Bide Hezkuntza tailer bat egingo dute, eta jarraian paseo bat egingo dute bizikletan. Horre-

Bihar 17:30ean, plazan tailer bat eskainiko dute zerbitzuaren erabiltzaileentzat

tarako bakoitzak bere bizikleta eramatea gomendatzen dute partzuergoko arduradunek, baita kasuak eta txalekoak ere. Amaitzeko pintxoak eta opariak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean.

Eskandinaviako delegazio bat Plazaolan izan da

Eskandinaviako delegazio batek Plazaolako Partzuergo Turistikoak bisitatu zuen herenegun.

Suedia, Danimarka eta Norvegiako eskualde administratiboetako 29 funtzionario hartu zuten parte bisitan. Bisitariak landa zonaldeetako turismoa eta zikloturismoa garatzeko Europa mailako proiektu batetan parte hartzen dute eta gurera etorri zirenean Plazaolako Partzuergo Turistikoaren esperientzia eta Natur Bidea ezagutzera eta zonaldeko bizikleten lehenengo erabiltzaileak izan ziren.

Burdina boluntario bila, karobiak leheneratzeko

Amasa-Villabona » Kultur taldekoen hurrengo egitasmoa eskualdean dago kokatua eta laguntzaileak behar dituzte.

ERREDAKZIOA

Burdina kultur taldekoek auzo-landegiak antolatu dituzte datorren hilerako. Saiok urriaren 2an eta 9an egingo dituzte Amasan aurkitzen diren Busturi Azpi eta Floreaga karobiak berreskuratzen.

Euskal kulturaren eta historiaren ondarea berreskuratzea da Burdina taldearen helburua. Eta bide honetan, orain, Villabona-Amasan egingo dute lan. Ez da inguru hauetan lanean ariko diren lehendabiziko aldia. Izan ere, aurretik ere Onddolarreko lurretan, bertan zeuden hondakin zahar batzuk leheneratu zituzten. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiete Udal ordezkariak, eskaintako laguntzagatik.

Urte guztian zehar, hainbat eta hainbat proiektu ari dira aurrera eramaten Burdina taldekoak. Andoain, Beizama, Elduain nahiz Berastegiko lurretan aritu diren azken hilabeteetan. Bost karobi leheneratu dituzte eta Leitza-rango mehatze esparruan kokatuta dauden bi errauste labe berreskuratutakoak, baita, ikaztegi bat eta mineralen zamatoki bat ere. Honez gain, ikerketa lanak burutu dituzte Leitza-rango mehatze zahar bartzuetan.

Boluntario ugari egiten dute lan lehen aipatutako proiektuetan, eta Burdinakoek argi dute, hauek gabe, ezingo luketela horrelakorik egin. Hori dela eta, orain ere, beraien hurrengo proiektua gauzatzeko, herritarren laguntza eskatzen dute. Interesatuak 699 48 76 83 telefono zenbakira deitzea besterik ez dute.

Urte ongi amaitzeko, boluntario guztiei egindako lana eskertzen festa berezi bat ari da antolatzen Burdina. Baina oraindik xehetasunak zehazteko daude.

Eskuratu Gipuzkoako natur eremuetako mapen bilduma DOAN!

Jaso **urriaren 3an BERRI**arekin etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoekin.

10 liburuxka:
4 parke natural:
 Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar eta Pagoeta
3 biotopo:
 Leitza-rango, Iñurritza eta Flysch Deba-Zumaia
Parketxe sareak · Talaiak bidea
Ibilbide irisgarriak: Larritz eta Arantzazu

Bakoitzean hainbat ibilbide + guztia bilduko duen zorroa

gizarte
kutxa

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

Aukera ezazu, bizi euskaraz
berria

www.gipuzkoamendimendi.net



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Berastegi.** Herriko eskolan odola emateko aukera, 18:30ean.
- **Tolosa.** Asis Sarearen hileroko otoitzaldia Santa Klara komentuko elizan 19:30ean.

Zinema

- **Tolosa.** *Canino* filma, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak! Miel Arostegi.

88 urte. Urte askoan attona eta segi holaxe! Etxekoan partetik.



ZARAUTZ

Ainarak argazki hau bidali du Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Ez da oso urrutira joan behar askotan; Zarauzko kasuan bezala, etxean zer dugun ere ez baitakiguru». AINARA



KANTABRIA

Nekane Eizagirre: «Aurten Nojan egon gara, benetan polita eta etxetik gertu. Islan ere egon ginene, eta hantxe hondartza txiki batean argazki hau ateratu nuen. Zutitutako harriak ziruditen». NEKANE EIZAGIRRE



PAZKOUHARTEA

Iñigo Alustiza: «Pazko Uhartean ateratako argazkia da hau. Ehunka moai edo harri-iruditzarren begiradapean, gustura bisitatu genuen munduan dagoen irlarik isolatuena omen dena». IÑIGO ALUSTIZA

argazki lehiaketa

XII. HITZA
Argazki
Lehiaketa
Animatu eta
parte hartu!

NORA
BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa



1. Saria



EAKO AN
PERTSAR

Getariako O
landetxean bi p
gau bat pas

3. Saria



Gorrotze
eskeinita

Parte-hartzaile or
HITZAko materi

2. Saria

